



BULTZA EUSKALTEGIAK!-BULTZA EUSKARA!

AEKk, ***Bultza euskaltegiak!-Bultza euskara!*** izeneko dinamika abiatu du Euskal Herrian, Helduen Euskalduntzearen garrantzia plazaratzeko eta normalizazioa aldarrikatzeko.

Argi dago euskararen normalizazioan Euskaltegiok egiten dugun ekarpena handia dela, izan ere, une honetan 45.000 lagun inguru ari da euskara ikasten eta hobetzen. **Euskalduntze prozesua bermatzeko, beraz, sektore indartsua eta lanerako baliabidez hornitua behar dugu eta, nola ez, hori bermatzea administrazioen betebeharra da.** Esan daiteke azken urteotan hobekuntza ematen ari dela arlo honetan, eta Korrikaren ondorioz hainbat KLIKA garrantzitsu eman dituztela administrazioek; baina nahi besteak izateko urruti gaude. Klika horien jarraipena eta azken bultzada da, hortaz, behar duguna; sektorearen normalizazioaren aldeko behin betiko erabakiak hartzea eta plan egokia inplementatzeko bidea zehaztea Euskal Herri osoan. Jakina da 22. Korrikan jarraituko dugula hau guztia lantzen; baina, zoritxarrez, atzeratu behar izan dugu hurrengo urtera arte, Korrikak eskatzen duen parte hartzea bermatzeko eta hurrengo demasa izatea nahi dugulako.

Aurten ere, baina, beharra hor dugula ezin ahaztu; pandemiak oraindik ere egoera prekarioagoan kokatu gaituelako. Horren aurrean, **normalizaziorako pausoak ematen jarraitzea da eskatzen duguna eta horri begirako bilkurak antolatu ditugu, herriz herri, jendartearen babesa ikustarazteko eta aldarrikapena indartzeko.** Ekintza horiek martxoaren 28an izango dira, eta Arrasaten ere izango dugu bilkura, Herriko Plazan, eguerdiko 12etan. Bertan, euskaltzaleak batu eta jai giroan -ordu erdiko ekitaldi xumean- elkarrekin goxo-goxo egotea da helburua. Plazan bildu eta egoerak eskatzen dituen neurri guztiak beteta, bertsoez, abestiez, marrazki lanez eta abarrez disfrutatzea da helburua; eta, nola ez, Euskalduntze-alfabetatze sektorearen normalizazioa aldarrikatuko duen testuarekin bat egitea.

Horrekin batera, gainera, Korrika atzeratzeak eragin digun zuloa betetzeko aukera ere zabaldu nahi diegu euskal herritarrei. **Ekarpen ekonomikoa egiteko kanpaina martxan dugu dagoeneko, AEKren webgunean, finantzazioa eskatu beharrak ekarri digun zorpetzeari aurre egiten laguntzeko.**

ZUEN BULTZADAREKIN LORTUKO DUGU!

Debagoieneko AEK euskaltegia